

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
24/2014	R15/2016	2016-07-28	<i>Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordea</i>	<i>Estatuko Administrazioa. Bizkaiko FA</i>	<i>Laneko atxikipenak - lantokiaren tokia zehaztea</i>

## **R15/2016 Ebazpena**

### **24/2014 espedientea**

Vitoria-Gasteiz hiria, 2016ko uztailaren 28a

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak, Gabriel Casado Ollero batzordeburuak eta Isaac Merino Jara eta Javier Muguruza Arrese batzordekideek osaturikoak, honako hau

## **ERABAKI DU**

Ogasunaren eta Administrazio Publikoen Ministerioko Maila Autonomikoa eta Tokikoa Koordinatzeko Idazkaritza Nagusiak igorritako 2014ko maiatzaren 13ko idazki bidez –hilaren 22an iritsi zen idazkia– abiarazitako prozeduran; idazki horren bitartez, Arbitraje Batzorde honi jakinarazi zitzaion desadostasuna dagoela Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordean ERAKUNDE AUTONOMOAK aurkeztutako zerga-arloko kontsulta ebazteari dagokionez. Kontsulta Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da, espediente-zenbakia 24/2014 du eta Javier Muguruza Arrese jauna da txostengilea.

## **I. AURREKARIAK**

1. Espedienteak honako aurrekari hauek ditu:

- 2014ko urtarrilaren 8an sartu zen Ogasunaren eta Administrazio Publikoen Ministerioko Zergen Zuzendaritza Nagusian Erakunde Autonomoaren kudeatzaile jaunak igorritako 2013ko abenduaren 26ko idazkia.
- Idazki horretan jakinarazten zenez, erakunde horrek Bizkaiko Foru Ogasunaren bi ofizio jaso zituen eta, ofizio horietan, ERAKUNDE AUTONOMOARI eskatzen zitzaion 110 ereduko aitortpena aurkeztu behar zuela 2013ko hirugarren hiruhilekoari zegozkion lan-atxikipenengatik, bai eta horren ondoriozko diru-sarrera egitea ere; halaber, zehapen-

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
24/2014	R15/2016	2016-07-28	<i>Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordea</i>	<i>Estatuko Administrazioa. Bizkaiko FA</i>	<i>Laneko atxikpenak - lantokiaren tokia zehaztea</i>

espedientea abiarazi zela jakinarazi zitzaion, 2013ko bigarren hiruhilekoari dagokion aitorten hori bera ez zuelako aurkeztu.

- Idazkiaren arabera, ERAKUNDE AUTONOMOA dagokion Ministerioari atxikitako Erakunde Autonomoa da, eta Estatutu propioen bidez arautzen da, [...].
- Idazkian, Ogasunaren eta Administrazio Publikoen Ministerioko Zergen Zuzendaritza Nagusiari eskatzen zitzaion erabaki zezala ea ERAKUNDE AUTONOMOA behartuta ote zegoen Bilboko LANTOKIKO langileen lan-atxikpenak Bizkaiko Foru Aldundian sartzera.
- Horretaz gain, idazkian Zergen Zuzendaritza Nagusiari jakinarazi zitzaion 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera Erakunde Autonomoa zuzenbide publikoko Estatu-erakunde bihurtu zela –Aurrekontuen Lege Orokorren (azaroaren 26ko 47/2003) 2. artikuluko 1. zenbakiko g) letran aurreikusitakoa–, betiere Estatuaren 2014rako Aurrekontu Orokorrei buruzko Legearen laurogeita zazpigarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera; horrela, bada, zera galdetzen zen, eraldaketa horrek aldaketaren bat eragiten ote zuen Bilboko LANTOKIKO langileen lan-atxikpenak sartzeko tokiari dagokionez.
- Maila Autonomikoa eta Tokikoa Koordinatzeko Idazkaritza Nagusiak ERAKUNDE AUTONOMOAREN kontsultari erantzuteko proposamena prestatu zuen; proposamen horren arabera, 2013ko abenduaren 31ra arte erakunde autonomo zenez oraindik, Itunaren 7. artikuluko Bi zenbakiko azken lerrokadan jasotako araua aplikatu behar zitzaion. Arau horrek dio erakunde autonomoetako funtzionario eta langileei egindako atxikipenek lan egiten duten tokiaren araua bete behar dutela; beraz, langile haien atxikpenak Bizkaiko Foru Aldundian sartu behar ziren. Baina 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera zuzenbide publikoko erakunde bihurtu zenez eta jada ez zenez Estatu Administrazio Orokorren mendeko erakunde autonomo eta enpresa-erakunde publikoa, atxikpenak ordainarazteko eskumena Estatuari dagokio orain, Itunaren 7. artikuluko bigarren zenbakiaren lehenengo lerrokada aplikatzearen ondorioz; izan ere, arau

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
24/2014	R15/2016	2016-07-28	<i>Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordea</i>	<i>Estatuko Administrazioa. Bizkaiko FA</i>	<i>Laneko atxikpenak - lantokiaren tokia zehaztea</i>

horren arabera, Estatuko Administrazioari dagokio Estatuak berak lan-kontratupeko langileei ordaintzen dizkien ordainsariei dagozkien atxikpenak biltzeko eskumena.

- Erantzun-proposamenean jasotzen zenez, Estatuko Administrazioaren ustez, Itunaren hamargarren xedapen iragankorrak –urriaren 25eko 28/2007 Legearen bitartez txertatutakoak– ez du azaldutako ondorioa indargabetzen, kontsultaren xede den kasuaz bestelako kasu zehatz bat aipatzen baitu haren ustez: erakunde autonomo edo enpresa-erakunde publiko bat agentzia bihurtzea Zerbitzu Publikoak Hobetzeko Estatu Agentziei buruzko Legearen (uztailaren 18ko 28/2006) bosgarren xedapen gehigarriaren arabera.
- Maila Autonomikoa eta Tokikoa Koordinatzeko Idazkaritza Nagusiak Eusko Jaurlaritzaren Zergen Zuzendaritza Nagusira helarazi zuen erantzun-proposamen hori, eta zuzendaritza horrek, aldi berean, Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organora (EZKO). Organo horrek, 2014ko otsailaren 10eko saioan, txostena egin zuen, baina Maila Autonomikoa eta Tokikoa Koordinatzeko Idazkaritza Nagusiaren proposamenean jasotako ondorioekin bat ez zetozen ondorioak atera zituen. EZKOaren ustez, ERAKUNDE AUTONOMOAK egindako atxikpenak, hau da, Bilboko LANTOKIko langileek egindako lanei dagozkienak Bizkaiko Foru Ogasunean sartu behar dira, zeren, oro har, erakunde autonomoek, enpresa-erakunde publikoek eta Estatuaren Erakunde Administrazioa osatzen duten gainerako erakundeek egindako lan-atxikpenak Ekonomia Itunaren 7. artikuluko Bigarren zenbakiaren Bat a) letran eta bigarren lerrokadan xedatutako arau orokorrari jarraikiz sartu behar baitira, edonola ere, Estatu ez den beste nortasun juridiko propio bat duten erakundeak direlako.
- Erakunde autonomoaren eraldaketa dela-eta, EZKOaren ustez, erakunde autonomo bat Estatu-agentzia edo beste mota bateko erakunde bihurtzen denean, lan-etekinen gainean egiten dituen atxikpenak zerbitzuak

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
24/2014	R15/2016	2016-07-28	<i>Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordea</i>	<i>Estatuko Administrazioa. Bizkaiko FA</i>	<i>Laneko atxikipenak - lantokiaren tokia zehaztea</i>

eskaintzen diren tokiaren arabera sartu behar dira oraindik ere, Itunaren hamargarren xedapen iragankorrean aurreikusitakoari jarraikiz. Horregatik, EZKOaren arabera, erakunde autonomoa aldatu izanak ez luke eraginik izan behar Bizkaiko langileen lan-etekinetan egindako atxikipenak sartzean.

2. Arbitraje Batzordeak gatazka izapidetzeko onartu zuen 2015eko abenduaren 2ko bileran.

3. 2015eko abenduaren 4an, Arbitraje Batzordeko presidentek idazkiak bidali zizkien Ogasunaren eta Administrazio Publikoen Ministerioaren Maila Autonomikoa eta Tokikoa Koordinatzeko Idazkaritza Nagusiari, Eusko Jaurlaritzaren Ogasunaren eta Finantza Politikako sailburuordeari, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiei eta Zerga Administrazioko Estatu Agentziari. Bertan, gatazkaren onarpena jakinarazten zien, Arbitraje Batzordearen Araudiaren 16. artikuluko 4. zenbakian ezarritakoaren arabera, Administrazio interesdunek egokitzat jotako alegazioak aurkezteko, hilabeteko epean. Eskaintza bera egin zitzaion ERAKUNDE AUTONOMOARI Arbitraje Batzordeko presidentek 2015eko abenduaren 17an igorritako idazki bidez.

4. Bizkaiko Foru Aldundiak (BFA) alegazioak aurkeztu zituen 2016ko urtarrilaren 14ko idazkiaren bitartez, eta egun berean eman zitzaion sarrera idazkiari; idazki horretan, EZKOak defendatutako tesian sakonduz, gatazka ebazteko eskatzen zuen, honako hau xedatzen zuenez: “ERAKUNDE AUTONOMOAK bere funtzionario eta langileei egiten dizkien lan-atxikipenak haiek lan egiten duten tokiaren arabera sartu behar ditu, Ekonomia Itunaren 7. artikulua Bi zenbakiko Bat a) letran eta bigarren lerrokadan adierazitakoari jarraikiz, eta ez Estatuko administrazioan, nolana ere”.

Labur adieraztearren, BFAREN arabera, bi Administrazioak ados daude LANA ETA ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZAGATIK egindako atxikipenak Bizkaiko Foru Ogasunean sartu behar direla erakunde autonomo izan den bitartean, baina gatazka zera da, erakundea eraldatu zenetik, hau da, 2014ko

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
24/2014	R15/2016	2016-07-28	<i>Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordea</i>	<i>Estatuko Administrazioa. Bizkaiko FA</i>	<i>Laneko atxikpenak - lantokiaren tokia zehaztea</i>

urtarrilaren 1etik aurrera erakunde publiko batek egindako lan-etekinen gaineko atxikipenei aplikatu beharreko lotura-puntua zehaztea, betiere erakunde publiko hori nortasun juridiko propioa duen eta Estatuaren Erakunde Administrazioan sartzen den erakundea izanik baina, zorrotz hartuta, erakunde autonomo edo enpresa-erakunde publiko izan gabe.

BFaren ustez, Ekonomia Itunean ez zaio Estatuko Administrazioari esleitzen Administrazio horren funtzionario eta langile guztien ordainsariei dagozkien atxikpenak ordainarazteko eskumena (erakunde autonomoetako eta enpresa-erakunde publikoetako langileenak izan ezik), baizik eta eskumen hori esleitzen zaio soilik "Estatuaren" funtzionario eta langileen ordainsarien kasuan, zorrotz hartuta.

BFaren ustez, Itunaren 7. artikulua egungo idazketa onartu zen unean –maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bitartez onartu zen–, Estatuaren Erakunde Administrazioa osatzen zuten garai hartako erakunde publikoen kategoria orokorrak Estatuko Administrazio Orokorraren Antolakuntza eta Funtzionamenduari buruzko Legearen (apirilaren 14ko 6/1997) 43. artikuluan jasotakoak dira; egun horietan, erakunde autonomoak eta enpresa-erakunde publikoak baino ez ziren aipatzen. Horregatik, nolahi ere Estatuko Administrazioak erakunde horien gaineko eskumena duela onartu beharrean, 7.Bi artikuluan erakundeen kategoria horiek soilik aipatu ziren euren funtzionario eta langileen atxikpenak lan egiten duten tokiaren irizpide orokorraren arabera sartu behar dituzten erakundeak zeintzuk diren zehazteko; izan ere, nortasun juridiko propioa eta kudeaketa-autonomia duten erakundeak dira.

Gaur egungo Ekonomia Ituna onartu zenean, Aurrekontuen Lege Orokorra (azaroaren 26ko 47/2003) oraindik ez zegoen indarrean, 2005eko urtarrilaren 1ean hasi baitzen indarrean; beraz, nekez aipa zitezkeen bertan esanbidez 2.1 g) artikuluan aipatzen diren erakundeak.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
24/2014	R15/2016	2016-07-28	<i>Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordea</i>	<i>Estatuko Administrazioa. Bizkaiko FA</i>	<i>Laneko atxikpenak - lantokiaren tokia zehaztea</i>

BFAk bere jarrera defendatzeko dioenez, oro har, administrazio-araudian "Estatua" esapidea ez da erabiltzen bere Erakunde Administrazioa barnean hartzen duela, baizik eta beti bereizten dira biak. Eta, hala, besteak beste, Estatuko Administrazio Orokorraren Antolakuntza eta Funtzionamenduari buruzko Legearen 1. eta 2. artikulua, azaroaren 26ko 30/1992 Legea eta Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen Legea (urriaren 1eko 39/2015) aipatzen ditu.

BFAren ustez, antzeko izaera duena ezin da beste modu batean tratatu, betiere esanbidez horrela araututa ez badago edo hori egitea justifikatzen duen arrazoi sendorik ez badago. Eta, hala, funtsean erakunde autonomoen edo enpresa-erakunde publikoen antzeko erakundeez ari bagara (eta ez Estatuko Administrazio Orokorraren antzekoez), batzuei eta besteei eman beharreko tratamenduak berdina izan beharko du.

Haren ustez, interpelazio hau berretsita dago Itunaren 7.Bi artikulua bigarren lerrokadan xedatutakoaren arabera; izan ere, arau bereziaren salbuespen bat baino gehiago, arauaren azalpen bat ematen du zera dioenean, arau berezi hori ez zaiela aplikatuko erakunde autonomoetako eta enpresa-erakunde publikoetako funtzionarioei eta langileei (hortaz, kategoria orokortzat hartuta, Estatuaren Erakunde Administrazio osoa biltzen dutenak). BFAk uste du ez lukeela zentzurik izango erakunde autonomoetako eta enpresa-erakunde publikoetako funtzionarioak eta langileak arau berezi horretatik salbuesteak, nortasun juridiko propioa dutelako (alegia, Estatuarena ez dena), baldin eta ez bada gauza berdina egiten beste erakunde publiko batzuetako langileen kasuan, betiere erakunde horiek ere nortasun juridiko propioa badute eta haiek baino autonomia funtzional eta kudeaketa-autonomia handiagoa badute. Bestela, BFAk dioenez, Estatuak Itunaren 7.Bi artikulua bigarren lerrokada edukiz hustu ahal izango luke bere kabuz, erakundeei erakunde autonomoena

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
24/2014	R15/2016	2016-07-28	<i>Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordea</i>	<i>Estatuko Administrazioa. Bizkaiko FA</i>	<i>Laneko atxikpenak - lantokiaren tokia zehaztea</i>

eta enpresa-erakunde publikoena ez den forma juridikoa esleitzeko mekanismo hutsaren bitartez.

5. Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioaren Maila Autonomikoa eta Tokikoa Koordinatzeko Idazkaritza Nagusiak alegazioak aurkeztu zituen 2016ko urtarrilaren 14ko data duen idazki bidez; sarrera-erregistroa ere egun berean egin zen.

Idazki horretan, kontsultaren ebazpen-proposamena berresten du eta proposamenean emandako argudioak errepikatzen ditu; horrela, bada, EZKOaren txostenarekin ez dagoela ados adierazten du eta labur-labur azalduko ditugun argudioak ematen ditu horretarako.

Maila Autonomikoa eta Tokikoa Koordinatzeko Idazkaritza Nagusiaren ustez, erakunde publikoek ordaintzen dituzten lan-etekinen kasuan, Itunean arau berezia xedatzen da eta arau horren bitartez, lotura-puntua izateaz gain, subjektu ordaintzailearen atxikpenak ordainarazteko eskumena esleitzen da. Funtzionario eta langileei emandako ordainsariak ordaintzen dituen Administrazioak (Estatuak edo Foru Ogasunak) atxikpenak ordainarazten ditu, eta arau horren salbuespen bakarra erakunde autonomoei eta enpresa-erakunde publikoei aplika dakieke, zerbitzua emateko tokiaren irizpidea aplikatzen baitzaie haiei.

Maila Autonomikoa eta Tokikoa Koordinatzeko Idazkaritza Nagusiak dio Itunean Administrazio erkideak edo Foru Administrazioak ordaintzen dituen errenten gaineko atxikpenak arautzen diren kasu guztietan eskumena Administrazioari esleitzen zaiola, eta atxikpenaren institutuaren funtzionamenduagatik beragatik ordaintzen dituela. Kasu horietan, erakunde bakoitzak beretzat kentzen du –oro har, kontuko idatzoharraren sistemaren bitartez– atxikipenei dagokien zenbatekoa, eta, hartara, Administrazio bakoitzak gero ez dio besteari egin behar dagokion diru-sarrera.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
24/2014	R15/2016	2016-07-28	<i>Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordea</i>	<i>Estatuko Administrazioa. Bizkaiko FA</i>	<i>Laneko atxikpenak - lantokiaren tokia zehaztea</i>

Maila Autonomikoa eta Tokikoa Koordinatzeko Idazkaritza Nagusia ez dator bat EZKOarekin, eta, haren ustez, ez da egokia Itunaren 7. artikuluko Bat.a) letran eta Bi zenbakiko bigarren lerrokadan xedatutako lotura-puntua (zerbitzua ematen den tokiaren araua) Erakunde Administrazioan sartzen diren erakunde guztiei aplikatzea, 7. artikuluan Bi zenbakian aipatu ala ez aipatu. Haren ustez, 7. artikuluko Bi zenbakiko lehenengo lerrokadan erabiltzen den “Estatuko Administrazioa” esapidea deszentralizatutako Administrazio guztia biltzen duen hondar-kontzeptutzat hartu behar da, betiere erakunde autonomoak edo enpresa-erakunde publikoak ez badira.

Dioenez, Estatuko Administrazio Orokorraren Antolakuntza eta Funtzionamenduari buruzko Legean “erakunde publikoak” izen generikoa erabiltzen da; izen horrek Estatuko Administrazio Orokorraren mendeko edo harekin lotutako Zuzenbide publikoko erakunde guztiak biltzen ditu, eta, nahiz eta 43. artikuluan erakunde autonomoetan eta enpresa-erakunde publikoetan sailkatu, seigarrenetik hamargarrenera bitarteko xedapen gehigarrietan onartzen du, halaber, badela erakunde publikoen multzo bat erakunde autonomoen edo enpresa-erakunde publikoen izaera ez duena eta bere araudi espezifikoaren bitartez arautzen dena.

Eta, Itunaren indarreko Legea (maiatzaren 23ko 12/2002 Legea) Estatuko Administrazio Orokorraren Antolakuntza eta Funtzionamenduari buruzko Legea baino geroagokoa izanik, 7. artikuluan lotura-puntua ezartzea adierazgarritzat hartu behar da, betiere 43. artikuluan aipatutakoarekin bat datorren sailkapena biltzen duela eta erakunde autonomo eta enpresa-erakunde publiko ez diren erakunde publikoak aipatu gabe, Administrazio ordaintzaileak atxikpenak ordainarazteko arau orokorraren salbuespenean sartzeko. Horrela, bada, erakunde multzo horri aipatutako salbuespena ez zaiela aplikatu behar interpreta daiteke.



<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
24/2014	R15/2016	2016-07-28	<i>Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordea</i>	<i>Estatuko Administrazioa. Bizkaiko FA</i>	<i>Laneko atxikipenak - lantokiaren tokia zehaztea</i>

Azkenik, Maila Autonomikoa eta Tokikoa Koordinatzeko Idazkaritza Nagusiak berriro dio kasu honetan ezin dela aplikatu Ekonomia Itunaren hamargarren xedapen gehigarrian xedatutakoa. Urriaren 25eko 28/2007 Legearen bitartez sartutako xedapena da eta erakunde autonomo edo enpresa-erakunde publiko bat agentzia bihurtzen den kasua aipatzen du, betiere Zerbitzu Publikoak Hobetzeko Estatu Agentziei buruzko Legearen (uztailaren 18ko 28/2006) bosgarren xedapen gehigarrian xedatutakoari jarraikiz. Aurreikusten denez, kasu horretan, atxikipenei dagokienez, agentziak 1. artikuluan erakunde autonomoentzat eta enpresa-erakunde publikoentzat aurreikusitako eskumen-araubidea aplikatuko du.

6.- Arabako Foru Aldundiak alegazioak aurkeztu zituen 2015eko abenduaren 28ko idazki baten bitartez; idazki horretan, EZKOaren txosteneko argudioak berretsi zituen. Gipuzkoako Foru Aldundiak ere antzeko jarrera adierazi zuen 2016ko urtarrilaren 11ko idazki batean; hilaren 12an erregistratu zen idazkia Arbitraje Batzordean.

7.- ERAKUNDE AUTONOMOAK alegazioak aurkeztu zituen zuzendari kudeatzaileak sinatutako 2016ko urtarrilaren 19ko idazkiaren bitartez; idazkia hilaren 26an erregistratu zen. Idazki horren arabera, erakundeak ez du zerikusirik erakunde autonomoekin eta enpresa-erakunde publikoekin eta, beraz, ezin zaio aplikatu Ekonomia Itunaren 7. artikuluko Bi zenbakiko bigarren lerrokadan xedatutakoa.

8.- Prozedura abenduaren 28ko 1760/2007 Dekretuak onartutako Arbitraje Batzordearen Araudian eta, zehazki, haren 14. artikulua preskripzioetan xedatutakoaren arabera izapidetu da.

## II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1. Gatazka hau sustatu da Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordean sortu den desadostasun batengatik, Ekonomia Itunaren 64.b)

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
24/2014	R15/2016	2016-07-28	Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordea	Estatuko Administrazioa. Bizkaiko FA	Laneko atxikipenak - lantokiaren tokia zehaztea

artikuluan aurreikusitako kontsultak ebazteko adiskidetasunezko prozeduraren barruan. Desadostasuna erantzun bati buruzkoa da; hain zuzen ere, ERAKUNDE AUTONOMOAK Ogasunaren eta Administrazio Publikoen Ministerioko Zergen Zuzendaritza Nagusian aurkeztutako kontsultari emandako erantzunari buruzkoa, eta kontsultaren bitartez, bere langileei Bizkaiko LANTOKIAN egindako lanengatik egindako atxikipenei dagozkien aitortpenak zer Zerga Administraziotan aurkeztu behar zituen jakin nahi zuen: ZAEA Zerga Administrazioko Estatu Agentzian edo Bizkaiko Foru Aldundian.

Bai Maila Autonomikoa eta Tokikoa Koordinatzeko Idazkaritza Nagusiak prestatutako erantzun-proposamena, bai proposamen hori dela-eta EZKOak prestatutako txostena bat datoz kontsulta-egileak 2013ko abenduaren 31ra arte –erakunde autonomoaren lege-formari eutsi zion bitartean– egindako atxikipenak Bizkaiko Foru Ogasunari dagozkiola. Erakundea eraldatu zenetik aurrera egindako atxikipenengatik dator desadostasuna.

Hortaz, gatazkaren muina zera da, zuzenbide publikoko estatu-erakunde baten langileek Euskal Autonomia Erkidegoan emandako zerbitzuen ondoriozko lan-etekinengatik atxikipenak ordainarazteko eskumena zein Administraziori dagokion erabakitzea, betiere Aurrekontuen Lege Orokorraren (azaroaren 26ko 47/2003) 2. artikuluko 1. zenbakiko g) letran aurreikusitakoen artetik; hau da, “zuzenbide publikoko estatu-erakundeak” baldin eta ez badira “Estatuko Administrazio Orokorraren mendeko erakunde autonomoak”, ez eta “Estatuko Administrazio Orokorraren mendeko enpresa-erakunde publikoak, edo Estatuko Administrazio Orokorrarekin lotutako edo haren mendeko diren beste edozein erakunde publiko” ere.

**2. Arbitraje Batzorde honek ERAKUNDE AUTONOMOAK egindako kontsultaren ondorioz Ekonomia Itunaren Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordearen barnean sortutako gatazka konpontzeko eskumena du; izan ere, 2014ko maiatzaren 13an izan genuen gatazka horren berri, idazki bitartez.**

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
24/2014	R15/2016	2016-07-28	Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordea	Estatuko Administrazioa. Bizkaiko FA	Laneko atxikpenak - lantokiaren tokia zehaztea

**3. Ekonomia Itunaren 7. Bat artikulua honako hau xedatzen du, laneko etekinak direla-eta egindako atxikpenak ordainarazteari dagokionez:**

“Bat. Lanaren etekinen ziozko atxikpenak eta konturako sarrerak, honako kasu hauetan, lurraldea dela-eta eskumena daukan foru-aldundiak eskatuko ditu, bere arautegiari eutsiz:

a) Euskadin egindako lan edo zerbitzuetatik datozen etekinak.”

Eta, 7. artikulua horretan bertan, Bi zenbakian honako hau xedatzen da:

"Bi. Aurreko paragrafoan xedatutakoa hala izan arren, Estatuko Administrazioari dagozkio Estatuak bere funtzionarioei eta lan-kontratuz eta administrazio-kontratuz dituen enplegatuei emandako ordainsari aktiboei eta pasiboei buruzko atxikpenak; jasotzaileak barik beste pertsona batek sortutako pentsioak ere ordainsari horien artean sartzen dira.

Aurreko paragrafoan xedatu dena ez zaie aplikatuko erakunde autonomoetako eta enpresa-erakunde publikoetako funtzionarioei eta langileei".

4. 2014rako Estatuaren Aurrekontu Orokorrei buruzko Legearen (abendua 27ko 22/2013) laurogeita zazpigarren xedapen gehigarrian honako hau xedatzen da: "erakunde autonomoa Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorraren 2. artikulua 1. paragrafoko g) idatz-zatian aurreikusitako zuzenbide publikoko Estatu-erakunde bihurtuko da; ondorioak 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu horrek, eta epe mugagabeen egongo da indarrean".

Eta Aurrekontuen Lege Orokorraren (azaroaren 26ko 47/2003) 2. artikuluko 1. zenbakian honako hau xedatzen da: "Lege honen ondoretarako, honako hauek osatzen dute Estatuko sektore publikoa: a) Estatuko

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
24/2014	R15/2016	2016-07-28	<i>Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordea</i>	<i>Estatuko Administrazioa. Bizkaiko FA</i>	<i>Laneko atxikipenak - lantokiaren tokia zehaztea</i>

Administrazio Orokorrak. b) Estatuko Administrazio Orokorraren mendeko erakunde autonomoek. c) Estatuko Administrazio Orokorraren mendeko edo Estatuko Administrazio Orokorrarekin lotutako edo haren mendeko diren beste edozein erakunde publikoren mendeko enpresa-erakunde publikoek. d) Zerbitzu komunak kudeatzen dituzten erakundeek eta Gizarte Segurantzako lan-istripuen eta lanbide-gaixotasunen mutualitateek Gizarte Segurantzaren kudeaketan laguntzeko funtzio publikoan. e) Estatuko merkataritza-sozietateek, Administrazio Publikoen Ondareari buruzko Legean zehaztutakoak. f) Estatuko sektore publikoko fundazioek, Fundazioei buruzko Legean zehaztutakoak. g) Zuzenbide publikoko estatu-erakundeek, zenbaki honen b) eta c) lerrokadetan aipatu direnak ez direnean (...).”

5.- Estatuko Administrazio Orokorraren Antolakuntza eta Funtzionamenduari buruzko Legeari (apirilaren 14ko 6/1997) dagokionez, 2016ko urriaren 2an amaituko da haren indarraldia Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legearen (urriaren 1eko 40/2015) xedapen indargabetzaile bakarrari jarraikiz; 6/1997 Lege horren Zioen Azalpenean honako hau adierazten da: “Atzeraezina da tradizionalki «Estatuaren Erakunde Administrazioa» deitu izan zaion horri buruzko araudia arrazionalizatzea eta eguneratzea. Lehenik, izen generiko bat aukeratu da, «erakunde publikoak»; izen horrek Estatuko Administrazio Orokorraren mendeko edo harekin lotutako Zuzenbide Publikoko erakunde guztiak biltzen ditu. Kontzeptu orokorrean oinarrituta, oinarritzko bi eredu bereizi dira gero: Erakunde autonomoak eta Enpresa-erakunde publikoak. Lehenengoek funtsean administrazio-jarduerak egiten dituzte eta Zuzenbide publikoari atxikita daude, erabat; bigarrenek, aldiz, zerbitzuak emateko edo kontraprestazio ekonomikoa izan dezaketan ondasunak ekoizteko jarduerak egiten dituzte, eta, oro har, Zuzenbide pribatuaren arabera arautzen diren arren, Zuzenbide publikoaren araubidea aplikatu dakieke ahal publikoak baliatzeari eta funtzionamenduari lotutako zenbait alderdiri dagokienez.”

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
24/2014	R15/2016	2016-07-28	<i>Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordea</i>	<i>Estatuko Administrazioa. Bizkaiko FA</i>	<i>Laneko atxikipenak - lantokiaren tokia zehaztea</i>

Asmoen adierazpen horren ondoren, erakunde publikoak honela definitzen ditu:

41. artikulua. Erakunde publikoei dagozkien jarduerak

«Erakunde publikoak dira Estatuko Administrazio Orokorraren menpe edo hari lotuta sortutakoak, 2. artikulua 3. zenbakian aurreikusitako edozer jarduera gauzatzeko, betiere, horren ezaugarriek euren antolakuntza eta garapena deszentralizazio funtzionaleko erregimenean justifikatzen dutenean».

Eta, 43. artikuluan, jatorrizko idazketan, honako hau xedatzen zen:

«43. artikulua. Erakunde publikoen sailkapena eta atxikipena

1. Honela sailkatzen dira erakunde publikoak:

- a) Erakunde autonomoak.
- b) Enpresa-erakunde publikoak».

4.- Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren artean egun indarrean dagoen Ekonomia Ituna maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bitartez onartu zenean, Estatuko Administrazio Orokorraren Antolakuntza eta Funtzionamenduari buruzko Legea indarrean zegoen.

Itunaren 7. artikuluko Bi zenbakiaren idazketa ezin da ulertu Zioen Azalpenaren eta Estatuko Administrazio Orokorraren Antolakuntza eta Funtzionamenduari buruzko Legearen 43. artikulua testuingurutik kanpo.

Manuaren hasieran, Estatuko Administrazioarentzat salbuespenezko araua ezartzen da honako arau honi dagokionez: lan-etekinengatiko atxikipenak lana egiten den tokiko Administrazioari esleitzeko arauari dagokionez. Xedatzen denari jarraikiz, Administrazio horrek ordaindutako ordainsariei dagozkien

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
24/2014	R15/2016	2016-07-28	<i>Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordea</i>	<i>Estatuko Administrazioa. Bizkaiko FA</i>	<i>Laneko atxikpenak - lantokiaren tokia zehaztea</i>

atxikpenak, lana egiten den tokiko Administrazioari beharreen, Administrazio horri berari dagozkio, nolahi ere.

Eta, jarraian, salbuespenaren salbuespen bat egiten du manuak. Horren bitartez, ondorio horietarako "Estatuko Administrazio"tzat hartu behar den eremua zehazten du, betiere "Estatuaren erakunde-administrazioa" esaten zaion hori haren eremutik salbuesteko.

Estatuko Administrazio Orokorraren Antolakuntza eta Funtzionamenduari buruzko Legea indarrean zegoela, Ekonomia Ituna idazteko garaian "Erakunde-administrazioa" "Estatuko Administrazioa" kontzeptutik at uzteko modu logikoa zera zen, oinarrizko bi kategoriak esanbidez eta zehazki aipatzea, lehenik, Zioen Azalpenean eta, gero, 43. artikuluan; bi aipamen horiekin, "tradizionalki Estatuaren Erakunde Administrazioa deitu izan zaiona" —Zioen Azalpena parafraseatuz— bereizten zen. Alegia, erakunde autonomoak eta enpresa-erakunde publikoak esanbidez aipatuta.

Eta logikoa zen hain justu horrela egitea, zeren Ekonomia Itunaren 2002ko idazketa berriarekin 1981eko Ekonomia Itun zaharrean indarrean egondako eskumenak banatzeko irizpidea aldatzen ari baitzen, Estatuko Administrazioak ordaintzen zituen lan-etekinengatiko atxikipenen gaineko eskumenei zegokienez.

Izan ere, maiatzaren 13ko 12/1981 Legearen bidez onartutako Itunaren 10. artikuluko Bat zenbakiaren Bigarren lerrokadan "Estatuko Administrazioari" esleitzen zitzaizkion, eskumen eskusibo moduan, funtzionarioek eta mota guztietako langileek jasotako ordainsariei —aktibo nahiz pasibo— dagozkien atxikipen guztiak, betiere funtzionario eta langile horiek Estatuarenak izan nahiz "estatu-organismo eta estatu-erakunde autonomoenak" izan. Erakunde Administrazioarentzat ez zen salbuespenik aurreikusi.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
24/2014	R15/2016	2016-07-28	<i>Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordea</i>	<i>Estatuko Administrazioa. Bizkaiko FA</i>	<i>Laneko atxikipenak - lantokiaren tokia zehaztea</i>

Eta testuinguru historiko horretan interpretatu behar da 2002ko Itunaren 7. artikulua Bi zenbakiko bigarren lerrokada.

Esanguratsua da 2006. urtean, Estatuko Administrazio Orokorraren Antolakuntza eta Funtzionamenduari buruzko Legearen 43. artikulua idazketa Zerbitzu Publikoak Hobetzeko Estatu Agentziei buruzko Legearen (uztailaren 18ko 28/2006) bitartez aldatu zenean eta erakunde publikoen zerrenda handitu zenean –erakunde autonomo eta enpresa-erakunde publikoei “estatu-agentziak” gehitu zitzaizkien–, Ekonomia Itunaren testua egokitu egin zela, hain justu, eskumenen banaketan oreka ziurtatzeko, 12/2002 Legea onartu zenean ezarritako sektore publikoaren atxikipenei dagokienez.

Horretarako, urriaren 25eko 28/2007 Legearen bitartez Ekonomia Itunean egindako erreforman hamargarren xedapen iragankorra txertatu zen; xedapen horren arabera, Estatuko Agentziei buruzko Lege berriaren babespean, erakunde autonomoren bat edo enpresa-erakunde publikoren bat agentzia bihurtuz gero, haren atxikipenak ordainarazteko eskumena erakunde autonomoentzat eta enpresa-erakunde publikoentzat berariaz aurreikusitakoa izango da.

6.- Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Ekonomia Ituna adostutako testua da eta artikulua bakarreko lege batean antolatzen da. Ekonomia Ituna erabaki bidez soilik alda daiteke; praktikan, erabaki horrek ahobatezkoa izan behar du, nahitaez, eta Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak hartu behar du. Batzorde horretan, Estatuak eta Euskal Autonomia Erkidegoak ordezkari kopuru bera dute.

Ekonomia Ituna adostua izaki, edukia adostu duten bi aldeetako bakar baten ekimenez erabakien ondoriozko oreka urratzeko aukera ematen duen manuen interpretazio oro baztertu egin behar da.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
24/2014	R15/2016	2016-07-28	<i>Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordea</i>	<i>Estatuko Administrazioa. Bizkaiko FA</i>	<i>Laneko atxikipenak - lantokiaren tokia zehaztea</i>

Horrekin batera, egia da, halaber, Ekonomia Ituna adostek ezin duela mugatu, ez urritu ere, inplikaturako Administrazioen autoantolaketarako ahalmena.

Hori horrela dela, Estatuko Administrazioaren erakunde autonomo bat beste erakunde-kategoria bat –ez erakunde autonomo, ez enpresa-erakunde publiko, ez estatu-agentzia– bihurtzeko erabakia har dezake, zalantzarik gabe, Estatuko Administrazioak bere kabuz, autoantolaketarako bere ahalmena baliatuta, baina Ekonomia Itunaren esparruan, ituna den aldetik, erabaki horrek ezin du eragin lan-etekinengatik atxikipenak ordainarazteko eskumena duen Administrazioa aldatzeko erabakia ere hartzea bere kabuz.

7.- Ekonomia Itunaren bigarren xedapen gehigarriak agintzen duenez, Ekonomia-itun honetan aldaketaren bat egin behar bada, bera onartzeko erabilitako bide berari jarraitu beharko zaio.

Horren arabera, eta BFAk alegazioen idazkian aipatzen duenez, Ekonomia Itunaren 7. artikularen interpretazioaren batek ondorio jakin bat aterarazten badu, interpretazio hori baztertu egin behar da; hona hemen ondorio hori: Estatuko Administrazioak Bi zenbakiko bigarren lerrokada edukiz hustu dezakeela bere kabuz, Euskal Autonomia Erkidegoan presentzia duten erakundeei erakunde autonomoen eta enpresa-erakunde publikoen forma juridikoarekin bat ez datorren forma juridikoa emate hutsagatik, nahiz eta manu horretan esanbidez aipaturako erakundeek baino autonomia eta independentzia funtzional handiagoa duten erakundeak izan.

8.- Ondorio horren aurrean ezin da argudiatu Ekonomia Ituna onartu zenean Estatuko Administrazio Orokorraren Antolakuntza eta Funtzionamenduari buruzko Legean –seigarren xedapen gehigarritik hamargarrenera bitarte– jada onartzen zela erakunde autonomoak eta enpresa-erakunde publikoak ez diren erakunde publikoak existitzen direla, eta erakunde horiek ere ez zirela sartu 7.



<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
24/2014	R15/2016	2016-07-28	<i>Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordea</i>	<i>Estatuko Administrazioa. Bizkaiko FA</i>	<i>Laneko atxikipenak - lantokiaren tokia zehaztea</i>

artikuluko Bi zenbakiaren bigarren lerrokadako zerrendan, Estatuko Administrazioaren atxikipenak ordainarazteko arau bereziaren salbuespen gisa.

Herri Administrazioen Erreformatarako Batzordea 2012. urtean sortu zen, besteak beste administrazio-erakundeak aztertze eta haien kopuruari eta konfigurazio juridikoari buruzko aldaketak proposatzeko; horrela, bada, batzorde horrek egindako txostenaren ondorioak Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legean gauzatu ziren, eta, Zioen Azalpenean dioenez, egia da “itxurazko esparru orokorra (Estatuko Administrazio Orokorraren Antolakuntza eta Funtzionamenduari buruzko Legearena) zalantzan jartzen dela legearen hamargarren xedapen gehigarrian xedatutako aurreikuspenarekin. Izan ere, xedapen gehigarri horren bitartez, erakunde jakin batzuk legearen aplikaziotik salbuetsita geratzen dira; egun 15 erakunde dira, eta, lege-aurreikuspen propioak dituztenez, Estatuko Administrazio Orokorraren Antolakuntza eta Funtzionamenduari buruzko Legea ordeztu gisa baino ez zaie aplikatzen. Hona hemen erakunde horiek: Balore Merkatuaren Batzorde Nazionala, Segurtasun Nuklearreko Kontseilua, RTVE Korporazioa, transferitu gabeko Unibertsitateak, Datuak Babesteko Bulegoa, Kanarietako Eremu Berezikoko Partzuergoa, Energiaren Batzorde Nazionala, Telekomunikazioen Merkatuaren Batzordea, Lehiaren Batzorde Nazionala, Posta Sektorearen Batzorde Nazionala, Ikus-entzunezkoen Estatuko Kontseilua, Jokoaren Batzorde Nazionala, Aireportuen Arautze Ekonomikorako Batzordea, Prado Museo Nazionala eta Reina Sofía Arte Zentroa Museo Nazionala.”

Esparru orokorretik salbuetsita dauden erakundeak oso bereziak dira, eta horregatik izan dute banakako tratamendua Estatuko Administrazio Orokorraren Antolakuntza eta Funtzionamenduari buruzko Legean, eta horregatik ez daude ezarrita Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean. Hain bereziak izaki, ondorio hau atera dezakegu: salbuespen horrek ezin du justifikatu Maila Autonomikoa eta Tokikoa Koordinatzeko Idazkaritza Nagusiak

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
24/2014	R15/2016	2016-07-28	<i>Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordea</i>	<i>Estatuko Administrazioa. Bizkaiko FA</i>	<i>Laneko atxikipenak - lantokiaren tokia zehaztea</i>

egin nahi duen interpretazioa, zeren Ekonomia Itunaren 7. artikuluko Bi zenbakiaren bigarren lerroak ezin baitu izan beste xederik, Erakunde Administrazioa osatzen duten erakunde publiko guztiek ordaintzen dituzten lan-eteekinengatik atxikipenak zerbitzuak ematen diren tokiaren lotura-puntuarekin lotzea ez bada.

Aurrekontuen Lege Orokorrean erakunde autonomoak eta enpresa-erakunde publikoak ez diren beste erakunde batzuk –Itunaren hamargarren xedapen gehigarri berria idatzi zenean aintzat hartu ez zirenak– jada inbentariatu zirelako argudioa ere baztergarria da.

Aurrekontuen Lege Orokorra ez da Estatuaren antolakuntza arautzen duen legea. Aurrekontuen Lege Orokorrean antolamendu-egitura ikuspegi jakin batetik begiratuta aztertzen da; hain zuzen ere, erakundeek egiten duten jardura aztertzeari lehentasuna ematen dion ikuspegitik begiratuta. Konponbideak bilatzea du xede, aurrekontuetako eta kontularitzako diziplina erakunde publiko mota guztiei aplikatzeko.

Hain justu horrexegatik txertatu zen ñabardura bat sektore publikoa definitzean; hain zuzen, soilik lege horren ondorioetarako zela (“2. artikulua: Estatuko sektore publikoa. 1. Lege honen ondoreetarako, honako hauek osatzen dute Estatuko sektore publikoa:...”)

Eta horrexegatik ere sartu ziren inbentarioan hainbat erakunde, definitu beharrekoak —idatzi zen une horretan existitzen zirelako—, baita ohiko kategorietan sartzen ez direlako ere; 2.1.g) artikuluan ikus daiteke horrelako kasu bat, bertan xedatzen baita Estatuko sektore publikoa osatzen duten erakundeen artean daudela erakunde autonomoak eta enpresa-erakunde publikoak ez diren zuzenbide publikoko estatu-erakundeak.

Azkenik, ezin dugu aipatu gabe utzi gure lege-arloko bilakaeraren azken gertakari garrantzitsua, gure ustez berretsi egiten baitu honako argudio hau:

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
24/2014	R15/2016	2016-07-28	Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordea	Estatuko Administrazioa. Bizkaiko FA	Laneko atxikipenak - lantokiaren tokia zehaztea

Erakunde Administrazioa osatzen duten erakundeen arau-ezaugarrien etengabeko bilakaerak eragotzi egiten duela hainbeste aldiz errepikatu dugun Itunaren 7. artikuluko Bi zenbakiko bigarren lerrokadaren hitzez hitzeko interpretazio ez-finalista egitea.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legea (urriaren 1eko 40/2015) onartu denez, Estatuko sektore publikoaren beste sailkapen bat finkatu da lege hori indarrean hasiz geroztik sortuko diren erakundeentzat.

84.1 artikuluan agertzen da sailkapen berri hori. Zorrotz jarraitzeko asmoz egin da oraingoan ere, eta asmo hori argi ikusten da, manuairen 2. zenbakian esanbidez debekatu ere egiten baita 1. zenbakian zerrendatutakoekin bat ez datozen erakunde motak sortzea. Horren arabera, Estatuko erakundeen sektore publikoan sartzen dira honako erakunde hauek: erakunde publikoak, hau da, erakunde autonomoak eta enpresa-erakunde publikoak; administrazioako agintaritza independenteak, Estatuko merkataritza-sozietateak, partzuergoak, sektore publikoko fundazioak, nortasun juridikorik gabeko funtsak eta transferitu gabeko unibertsitate publikoak.

Horretaz gain, 40/2015 Legearen bitartez Estatuko Administrazio Orokorraren Antolakuntza eta Funtzionamenduari buruzko Legea indargabetzen da.

Gauzak horrela, arau hau indarrean sartzen denean, are arrazoi gehiagorekin, Itunaren 7. artikuluko 2. zenbakiaren exegesi egokia egiteko, idazteko uneko testuinguru historikoari eta teleologiari erreparatu beharko zaie.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
24/2014	R15/2016	2016-07-28	<i>Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordea</i>	<i>Estatuko Administrazioa. Bizkaiko FA</i>	<i>Laneko atxikpenak - lantokiaren tokia zehaztea</i>

## ERABAKI DU

1.- ERAKUNDE AUTONOMOAK bere langileei Euskal Autonomia Erkidegoan egindako lanengatik ordaindutako lan-etekinei aplikatu beharreko atxikpenak ordainarazteko eskumena Foru Ogasunari dagokiola adieraztea, betiere zerbitzuak ematen diren lurraldearen arabera kasuan kasu eskuduna den Foru Ogasuna izanik; beraz, kontsulta eragin duen kasuan, Bizkaiko Foru Ogasunari dagokio.

2.- Jarduketak amaitutzat jotzea eta artxibatzea.

3.- Erabaki hau honako hauei jakinaraztea: Ekonomia Itunaren Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordeari, prozedura honetan parte hartu duten Administrazioei, hau da, Ogasunaren eta Administrazio Publikoen Ministerioko Maila Autonomikoa eta Tokikoa Koordinatzeko Idazkaritza Nagusiari eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiei, eta ERAKUNDE AUTONOMOARI.